


bidegileak



Manuel Lasarte Arribillaga (1927)


Egilea:

IÑAKI ZUBIZARRETA

«Ni naiz 1927'garren urteko abenduaren 16'garren egunean jaio nintzana Leitzako Franki baserrian.» Leitzan sortuak ziren Manuelen gurasoak ere: Frantzisko eta Eugenia.

Franki baserria erreka ondoan dago, bi mendiren tarteko sakontxo batean. Bertatik bide berdintsu samarra da Leitzara eta Berastegira: ordubete behar omen du oinezkoak bizi-bizi joanda, dio Manuelek.

Ni azitako Franki zarreko sukaldearen epela, arrats askotan luak artzen nau bera gogoan detela.



Manuel Lasarte Arribillaga (1927)

Manueli ez zaizkio inoiz ahazten haurtzaroko istorio politak, Leitzako Franki baserrikoak, hain zuzen; urte zoriontsuak hantxe pasatu baitzituen, gutxi izan baziren ere. Ezta gertaera tristeak ere: «Gu zortzi senide giñan gutira eta ni nintzan gazteena. Nere aurreko arrebatxo bat an il zan, Joakina, zortzi urte zituelarik meningitis edo buruko gaitz orrek arrapatu zuelako».



Franki baseria



Manuel Lasarte guraso eta senideekin

Txiki-txikitatik ezagutu zuen sufrimendua.
Eskerrak bazuen ondoan nork lagundua.

«Baiña iñork neurtu ote lezake ama on baten
aunditasuna zertaraiñokoa dan, eta bere aurra-
ri dion maitasunak zenbat balio duen?... Ama
ta aita, zer gauza aundiak diran, ondo pentsa-
tuko bagendu!»

Amak azi ninduen
bere besuetan,
ase ta berdinduaz
bular gozuetan;
gero aitari laguntzen
Franki basuetan,
artzai ibili nintzan
urte batzuetan,
lenengo antxe asi
nintzan bertsuetan.

Guraso eta senideak bezalaxe, gogoan du beti
Leitza, sorterrria, eta Jainkoa, Manuelen ber-
tsoetan sarri-sarri agertzen dena:

O, erritxoa, ez det damurik
zure sieskan aziya,
eman zenidan arnasa eta
eman zenidan biziya;
Oialde'pean bada eleiz bat
edertasunez jantziya,
bataio-bidez an artu nuen
Jaungoikoaren graziya,
Leitza, nik ere zuri zor dizut
nere izate guziya.



Aia



Leitza



Orio

Hamabi urte eskas zituela, Leitzatik Aiara etorri zen familia osoa. Maizterrak ziren eta baserria utzi beharra egokitu. Manueltxok bazuen baserrian zaldi kuttun bat, eta aitari hainbeste erregu eginda gero, gorde ahal izan zuen. Halaxe, zaldiaren gainean etorri zen Leitzako Frankitik Aiara, pozik.

Aia, artzai bat bezela zaude
bera begira goiko menditik.
Gallur batean nun da erri bat
zu bezin txukun eta politik?
Gauetz intz ederra zeru goitik,
ipar-aizea itxas-aldeak,
zorionaren arnas berriak
artzen dituzu nunaitik.

Soldadutzatik etorri eta «Lenengo etxekoei laguntzen aritu bear izan nuen denbora-alditxoan, nere martxa zuzendu bitartean. Ni ez bainintzan bertarako, ta beste nunbait neukan ogia irabazi bearra, ta Zarautzen antolatu, ain zuzen, perratokia. Ez kosta gabe. Iru bat urtean aritu nintzan an. Oikinan ere artu nuen perratokia eta ezkondu ere garai artantxe egin nintzan da sei illabete inguru Oikinko etxe batean pasa genituan».

Eta 1954an, Oriora. Hiru seme-alaba izan zituen Orion: Eusebio, Maria Pilar eta Maria Pilar. Bihotz oneko jendea dela Oriokoa, dio Manuelek, bizimodu bila joan bertara eta ongi hartu zuena.

Noizbait bukatu bear
bizitza laburra,
orrek ematen ditu
kezka ta bildurra;
bi gauz eskatze'izkizut,
Orio xamurra:
bizitzeko ogiya ta
ildakuan lurra.

Leitzan bezala Orion ere berehala izan zuen atarian herio. Han arreba eraman zion, hemen alaba. «1958'an il zitzaigun alabatxo bat, amazazpi illabetekoa, eta moduz gañera, babarrun-ale bat kontrako eztarrira sartuta. Ez gurea zalako, baño aur zoragarri bat zan. Nik, nere bizitzan, osasun-paltak eta pena aundiak izan ditut; baño aur ark eman zidan penik aundiena, gaixoak; esaterik ez dan modukoa.»



Maria Pilar alaba zena

Jauna zerutik billa
zaizulako jetxi,
lur tristean negarrez
bear nazu utzi;
zerura jua nai dezu
ta nik ezin eutsi,
ia an biltzen geran
bihar edo etzi!

Alaba hil eta hurrengo alabari ere Maria Pilar jarri zioten izena, haren lekua nolabait betetzeko edo. Maria Pilar bigarrenak egin zuen aitona Manuel, eta zail da hori dotoreago adierazten aitonaren aldetik:

Alaba, gau bat oso estua
bein bazenduen izana,
gaur maite dezun semetxo ori
mundura etorri zana,
zuk aingeru bat egin zendun ta
zu aingeru orrek ama,
une uraxe bera izan zan
ni aiton egin nintzana.



Maria Pilar alaba Manuel semearekin



Manuel Manueltxo bilobarekin



skolan oso gutxi ibilia da Manuel; «bate-re ez esanda gezurra litzake, baiña ortik aurrera gutxi» bere hitzetan. Lana izan du bizitzako eskola.

Hamaika bat urte zituela hasi zen lanean, koinatuarekin; ferratzailea zen eta Aian hartu zuen ferratokia. Bizikletan etortzen ziren Frankitik Aiara, Manuel-txo aurreko palankan eserita: astelehen goizean etorri eta larunbat gauean buelta. Gero Aiara bizitzera etorrita, hama-bi urte eskas zituela, berehala joan zen pintxe basora, Ernio mendira. Asteasura joaten zen ogi bila; bi ordu paseak behar omen ziren eta goizeko sei t'erdietarako han izaten zen. Basomutilen bizi-



Manuel bere errementarian, Orion

modu latza eta gogorra ezin hobeto adierazi zuen bertsoan:

Goizean izarrekin lanera
eta utzi illunduta,
egunsentiko mutil gogorra
gauerako bigunduta.

Basoko pintxe lanak bukatuta, Zumarragara joan zen morroi. Eta ganadu ferratzen ere jardun zuen han. Handik Eibarrera, ferratzaile:

urtebeteko tratua eta hileko hemezortzi duro. Bigarren urtean hileko hamar pezeta gehiago. Lau urte pasatu zituen Eibarren, hamahiru urte eskas zituela joanda. Egunero goizeko bostetan esnatu eta lanera. Eta igandean nagusiarren baserriko lanak.

Gero, soldadu joan bitarterainokoan, hiruzpalau urte, koinatuari laguntzen jarraitu zuen Aian, ferratokian. Amezketan ere aritu zen garai horretan ganadu ferratzen, lauzpabost hilabetea, bertako ferratzailea gaixorik egon zen denboran. Soldadutzan ere, hango zaldiak eta mandoak ferratzea izan zuen eginkizun nagusia.

Soldadutzatik etorrira, Zarautzen antolatu zuen ferratokia, eta errementari lanean ere aritu zen, hiru urte pasatxo. Oikinan ere hartu zuen ferratokia garai hartan, Joxe Mari Osa sozioarekin batera: goizean Zarautzen eta arratsaldean Oikinan ganadu ferratzen.

Ferratokiak utzi eta Orion errementari hasi zen. «Aitzurrak, laiak, are-ortzak, besabe-ortzak, asto-perrak, zaldi-perrak eta idientzako ta beientzako perrak ere eskuz egin izan giñuzen. Zurgifiñentzako trabesak eta gurdi kurpilla ere bai. Ta dana galdan, sutan. Len etzan, orain bezela, soldaduraz eta ola lanik egiten. Amaika izerdi badegu ateria sute-gi-lanean.»

Manuel Eusebio semearekin lanean

Sua pizten genduen
guk goizetikan goiz,
bostak aldean edo
lentxiago iñoiz;
bazter danak beteak
atxur zarrez ta laiz,
aiek altzairatutzen
jarduten giñan maiz.

Arrantzaleek ere lan dezente ematen omen zioten. Eta balkoi, ate, leiho eta obretako zereginetan ere sartu zen. Eusebio semeak aita-gandik ikasi zuen lanbidea, eta gaur egun berak jarraitzen du aitaren tokia betetzen.



Naiago nitek gauzak egoki
aterako balitzaizkik,
baiña munduko bizitza onek
zorion osorik ez dik.
Eziñak eta larri-aldiak
neretzako izan dizkik,
ta iri ere seguru asko
arantzak sortuko zaizkik.



Manuelen lana ez zen ferratokira eta sutegira mugatu; gazterik hasi zen beste lan klase berezi eta eder batean ere. «Nik amazazpi urterekin kantatu nituen lenengo bertsoak plazan, Zaldibarren. Antxe jaso nuen nik lenengo ogei durokoa bertsoetatik. Bein emezortzi urte nituenerako, asi nintzan erriz-erri ugari samar kantatzen da txanpon batzuk irabazten.»

Bertsolaritza lan gogorra dela berez, dio Manuelek, baina halere ez duela batere damurik, baldin ibilera txar eta nolabaiteko guztiak herriaren mesederako egin baditu.



Manuel Lasarte Basarriekin bertsotan, gazte zelarik

Osasun gorabeherak garrantzi handia izan dute Manuelen bizitzan. Job santua gogorarazten digute haren «Nere bizitza estua» izeneko sei bertsoek. Hona hemen lehen bertsoa:

Gure lur maite onetan
bizi bearrak penetan
samintzen gaitu benetan.
Ene Jainkoa, ez dakit ainbat
sufritzeko nik zer detan;
ogei bat urte auetan,
egunez eta gauetan,
beti nabil naigabetan.

Gurutze-bide latza egokitu zaio bizitza Manueli, eta gizatasun osoz ibili du.



Arrebaren heriotza txikitan, alabarena aita gazte zelarik; hori gutxi ez eta osasun arazoak beti, gazte-gaztetatik hasita: ogi txarrak janda urdailetik gaixotu zen gerraondoan. «Gerrak amari osasuna kendu zion eta niri ere bai.»

1955ean kamioi batekin txoke egin zuen, bertotan batetik bestera ibiltzeko erosi zuen

motoarekin. «Igeltsoz amarraturik berrogei ta bost egun pasa nituen oean, ortzaz gora etzanda. Bederatzi illabeteen errenka ta penatuaz ortxe ibili bear izan nuen.»

Emazteagandik banantzeak ez zion, jakina, penak arintzen lagundu:

Ezkundu nitzan lagunarekin
bizi izateko ustean,
baño mundua ain da pobrea
alkartasuna austean;
seme-alabak azitzen jardun
naiz bakardade tristean,
baño gaur aiek maite naute ta
kontentu onenbestean.
Kalte aundiak gauz orrek egin
zizkidan osasunean,
au gertatzen da penaren miñak
bat menderatzen dunean;
urte batzuek triste igaro
ditut illuntasunean,
baño gaur pozik bizi naiz seme-
-alaben maitasunean.

Familia aurrera ateratzeko ahalegin handiak egin behar izan zituen. «Alaxe, aztarrika nenbillela, lanean an da emen, len erdi ipurdi ta gero erabat gaixotu.» 1963ko udaberrian jateari utzi behar izan zion. Ez zion, halere, bertsoak kantatzeari utzi. «Gaur arritu naiz zurekin», —ziotson bertsozale batek— «Illabete jan gabe pasata, kantatu dezun bezela kantatzeko, aparteko zerbait bear du gizonak derrigor.» Hauxe izan zen Manuelen erantzua,



na, adierazgarria benetan: «Nigan ez dago ixpiritu pixka bat besterik ezer». Hirurogei egunean ez omen zen mokadurik sartu bere sabelean, dio geroxeago.

«1963'garren urteko San Juan illean, ebakuntza beldurgarria egin zidaten Donostiko ospi-

talean urdailletik. Ebakuntza pasa ta gero, Uztapidek galdetu zidan, bein batez, zer moduz nenbilen, eta onela erantzun nion:

Ni nazu luzaruan
gaixo egondua,
len gogorra nitzana
orain bigundua;
supritzeko izan da
neretzat mundua,
eskerrak izan dala
zeñek lagundua.»

«Eskerrak izan dala zeñek lagundua», «baño gaur aiek maite naute ta kontentu onenbestean», «baño gaur pozik bizi naiz seme-alaben maitasunean». Manuelen «ixpiritua» benetan da sendoa gorputz ahulean, eta esker ona dario oinazetan ere, itxaropenezko konformidadean.

Ez ziren 1963an bukatu Manuelentzat ospitaleetako joan-etorriak, eta egonaldiak, koliko gogor bat zela behiala, anemia dela oraindik orain: zer eta burdin falta odolean, beti burdinarekin jardunda lanean. Txantxa horixe zerabilen mediku-erizain-bisitariekin, irribarrez.




Manuel Eusebio eta Maria Pilar seme-alabekin

B

arai bateko bertsozaleok ezin bananduzko bikote zoragarri bat ezagutzeko eta entzuteko aukera izan genuen: Manuel Olaizola *Uztapide* eta Manuel Lasarte.

1987ko *Jakin* aldizkariaren Uztaila-Iraila alean, Joan Mari Torrealdaik 140 bertsolariri eginiko inkestan, biak azaltzen dira lehen bi tokietan, «bertsolari zahar gogokoenak» galderari erantzutean, hiru izen emateko eskatuta. 66 bertsolarik izendatu zuten Uztapide eta 55ek Lasarte; beste guztiak atzean geratu ziren alde dezentearekin.

Bi Manuel maitagarrioren bat etortzea bertsolaritzan izan den gertaerarik ede-



Manuel Uztapide eta Manuel Lasarte

rrenetako bat izan da, eta emankorrenetakoa, nik uste. Zenbat bertso kantatu ote zuten elkarrekin, 27 urtean plazarik plaza ibilita? Urtean 100 saio ez, baina hortik ez oso urrun, dio Lasartek. Biderkatu besterik ez dago, saioko bertso mordoxka izango zela kontuan hartuta.

Honela dio Uztapidek lagunari buruz: «Sekulan ez degu itz bat bestea baño indartsuago egin bearrik izan alkarri. Neretzako gizon ona da; gizon serioa ta errespetokoa; gizon apala ta atsegiña; itz batean esateko, gizon osoa». Eta honela, bertsotan:

Zorionean egun batian
gu biok giñan alkartu,
bein ezagutu giñaden eta
geiago ezin bakartu;
landaretxo bat txertatutzian
bezela biok artu,
oraindik gure maitasunikan
ez da ziaro igartu.

Eta honela dio Lasartek lagunari buruz: «Neri Uztapide zana ezin zait aztu. Ametsetan ere arekin ibiltzen naiz oean bueltaka sarritan. Maite det gaur oraindik, bizi zanean bezelaxe. Neretzat ez da bein ere ilko. Oso ona zen. Izugarri gizona. Bertsolari ederra». Eta honela, bertsotan:

Txoria aldatzen da
basotik basora,
bai ni ere, Manuel,
pausotik pausora.
Zu falta zaitudanez
ez nabil gustora,
ezin bainaiz iritxi
zorion osora,
gu biok len genduen
maitasun gozora.



Manuel Lasarte eta Manuel Uztapide



Maitin eta Lasarte

Basarriekin ere harreman gozoa izan zuen Manuel Lasartek. Hitz biribilok idatzi zituen behin Basarrik: «Nere iritziz, lengo ta oraingo, denbora guztietan izan diran bertsolarietan onen-onenetako bat degu Manuel Lasarte. Euskera bizi dan arte beti gogoan izango dana... Urteak joango dira, belaunaldiak joango dira, baina Lasarte gogoan izango da». Eta honela kantatu zituen Manuelen bi dohain ederrenetakoak: bertsotarako erraztasuna, eta apaltasuna:

Dezun erreztasuna
bai ederra dala,
zure talentu ori
ezta, ez, argala.
Gizatasunez ere
etzaude makala,
apalik iñor bada
zu zera apala.

Manuelek, berriz, bertsolari ederra zela Basarri, dio, eta bertso eder haxe eskaini zion hiletan:

Basarri zu eskertzen
bada naiko lana,
ainbat ejenplo eder
baitzera emana.
Gorputza emen dago
anima joana,
dudarik gabe Jaunak
zerura eramana,
ni maite ninduna ta
nik maite nuana.

Gogoan ditu Lasartek Xalbador eta Mattin ere bere hitz eta bertsoetan: «Xalbador bertsolari sakona genduen oso. Eta Ahetzeko txoria, Mattin bertsolaria alegia... Mattin erriaren jostailua zan. Pesta giroan kantatzeko bertsolaria, alaia ta bizia. Gizon argia ta lagun arterako asko balio zuena. Eraman aundikoa. Xalbadorren bertsoak ixillean ausnartu oi zituzten askok, biotza ukitzen ziotelako».



Uztapide eta Basarri

Xalbador eta Mattin
gure taldekoak,
biak genitun mugaz
beste aldekoak.
Lagun urkoari on
egin zalekoak,
euskeraren maitale
neurri gabekoak,
ogi biguna baiño
biotz obekoak.

Eta gogoan du Joxe Migel Iztueta *Lazkao-Txiki*,
nola ez. Beste bertso askoren artean honako
hau eskaini zion behin:

Maite zenitun aurtxoak,
senide ta gurasoak,
txori, mendi ta basoak.
Denentzat badu zer itzegiña
biotz amodiosoak.
Jostaillu kuriosoak
zirala zure bertsoak
badaki erri osoak.



Xalbador, Leoni eta Manuel



Manuel eta Lazkao-Txiki

Lazkao-Txikik ere ez zeukan saltzeko Manuel:

Lasarte ikusi ta bera entzun
ori da bertsolaria!
Jan bear baldin balitza ere
bedeinkatutako ogia.
Bertsoak aisa botatzen ditu,
ez du etorri nagia;
lantegi ortan onena eta
lagun bezela obia.

Joan ziren bertsolariak dira denak, baina gure
bihotz-gogoetan gordeak. Uztapideren aurre-
ko bertsolariekin ere jarduna da Manuel:
Saiburu, Zubeltzu, Txapel, Zepai... Eta jakina,
ondorengo ia bertsolari guztiekin plazatik
ezkutatu zen arte, adin bereko Joxe Lizaso-
gandik hasita: «neri asko lagundutako gizona da
Lizaso».



Lizaso, Lasarte eta Uztapide

«B»

ertsolaritzari eskerrak eman nai nizkioke, orren bitartez ainbat zoko ikustera iritxi geralako. Pausoz pauso eramán gaitu Euskal Erri osoaren punta batetik bestera.»

Eta Euskal Herriko zoko-bideetan herri-tarrak ezagutzeko aukera paregabea izan du. Alde guztietan egin ditu lagunak; bere kontakizun eta bertsoetan modu eta klase guztietako pertsonak azaltzen dira: Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Inaxio Mari Atxukarro, Eduardo Txillida, Martin Berasategi, Joan Mari Lekuona, Antonio Zavala... Amai gabea izango litzateke zerrenda. Aita Santuaren aurrean ere kantatu zuen Loiolan:



Manuel Loiolan, Aita Santuaren aurrean

Kristoren ordezkoa degu gaur
gure artean deguna,
Erromatikan etorri zaigu,
au da poza daukaguna!
Fededunentzat au izango da
aztuko ez dan eguna,
Aita Santuak Euskal Errira
bisita egin diguna.

«Kinto lagun asko genituen mutil indartsuak. Euskalerrian plaza-gizon sonatuak alegia. Aizkolariak: Txurruka, Yurrebaso, Gartziarena, Kortaberri, Migel Zabaleta. Alkarren inguruan prankotan ibiliak gera erriz erri. Arri-jasotzai-

lleak ere baziran onak kinta berekoak: Agerre lenengoa ta Garatxabal. Bertsolariak, berriz, Joxe Lizaso ta ni, Lasarte.»

Herri kirolariak oso gogoan izan ditu beti Manuelek: aizkolari eta harri-jasotzaileekin batera segalariak, arraunlariak, pilotariak... Eta kirolariak bakarrik ez, oso gogoko zituen soinu jotzaileak ere: Elgeta, Sakabi, Kaxiano... Baita dantzariak ere:



Antonio Zavala

Zu dantzan ala ikusirikan
erabat txoratu nintzan,
abuztuaren laua zan, etzait
aztuko nere bizitzan.
Zure oin txiki, txukun, politik
arin asko an zebiltzan,
une batean nik uste nuen
aidean ote zenbiltzan.



Manuel Lekuona



Neska dantzaria

Eta gogoan izan ditu bere bertso eta kontakizunetan baserritarrak, arrantzaleak, aitona-amonak, umeak, neska eta mutil zaharrak. Manuelen bihotza denentzat zabal-zabalik ibili da Euskal Herriko txoko eta bideetan. Horregatixe omenaldiak ere ugari jaso ditu han eta hemen. 1971n egin zioten Donostian, San Jose egunean:

Maite zaituztet anai-arrebak
ez det beste zer esanik,
ainbeste jende nola bildu dan
ni ezerez bat izanik.
Zuen morrontzan jarraitu nai det
gaur ematen det itza nik,
ez nuen uste Euskalerrian
olain maitea nintzanik.

Egun gogoangarria izan zen Leitzakoa ere, 1975eko martxoaren 2koa: «Nere bizitzan izan deten egunik aundiena; bataiatu ninduten egun aundiaren urrengoa, nere ustez:

Nere irudi bat ere or jarri
dute erriko kalean,
ongille denak eskertu naian
nabil iñundik alean.
Esan nezake: jaio nintzan lur
bedeinkatu zabalean,
bularra artzen ari naizela
gaur amaren magalean».

Aia eta Orio herriek ere ez daukate, noski, atzenduta seme kutuna eta omenaldi bikainak eskaini dizkiote. Beste herri askok ere bai. Hogei omenaldi edo gehiago jaso da eta oraindik ere jasoko ditu, dudarik gabe. Iazko udazkenean Arantzazun zabaldu eta geroztik herriz herri ibilitako Erakusketa ere Manueli hiru lagunek eginiko omenaldia besterik ez da izan, beste pertsona eta erakunde askoren laguntzarekin.




Manuel bere irudiaren ondoan

B

at-batean plazan kantari eta bertso jartzzen etxean, egoki eta txukun, dotore beti; iturriari ura bezalaxe dario bertsoa, oztoporik gabe bidean.

«Manuel Lasarte'k neurrian eta puntuetan ez du bere berdiñik» dio Uztapedek. Joan Mari Lekuonak, berriz: «Inork ez bezala ematen digu hitzek duten hots-irudizko antza, hitzen hots berdinek elkarren artean duten lokera maji-koa». Eta Antonio Zavalak: «Ba puntu aberatsik baldin bada, aberatsa orratik Lasarte'ren puntua. Iñork nundik eta nola ez dakiela, oso aurretik asten da Lasarte'ren puntua; bi eta iru silabarekin osatzen dana. Ta silaba oiek ez dira



Manuel gaztearen argazkia

beti itz berarenak; bi ta iñoizka iru itzek ere osatzen dute alditan Lasarte'ren puntua. Orregatik, neurrian xuxen ta juxtu, puntuetan aberatsa, zalla, ugaria ta berri-zalea, oiek dituana, besterik gabe ere, ez da nolanaiko bertsolaria izango».

Neurri-puntuak, halere, bide besterik ez dira barrutik adierazi nahi duena azaltzeko. Nolako isiltasuna plazan bera kantari hasterakoan! Izan

ere haren kantu ederra, ahots sakon eta gozoa, haren irudia, Grecoren margolanen batetik aterea zirudiena, hain ziren erakargarri! Gauza horiek erakarri ote zuten Eduardo Txillida ere Manuelengana, opari eta guzti etxean agertze-ko? Eta berezkotasunak, ziur asko. Eduardok ez zuen uste handirik arte akademia edo eskole-tan. Nork berea landu behar duela uste zuen eta horixe ikusiko zuen Lasartegan ere, artisten berezko senaz: sortzaile bikaina.

«Bertsolariari berez sortu bear zaio bertsoa... Nere iturritik sortzen zen ura erabili dut bertsoarako... Berezkoa bear du bertsolariak.» Nabarmena da Manuelek berezkotasunari, berezko sormenari, dion begirunea: behin eta berriz aipatzen du bertso, kontakizun eta elkar-rrizketetan. Filosofo, artista eta poeta handien bidetik dabil horretan, berak eskolarik ez izan arren. Adibidez, Angelus Silesius poeta mistiko-aren «die ros ist ohn warum» (arrosa zergatirik gabe da) hitzak dakarzkigute gogora Manuelen lore eder bati eskainitako bertsoek:

Bere burua agertu naian
gaixoak bazuen presa
erakusteko nolakoa dan
munduko naturaleza.

Xorroak intzez bustiak zeuzkan
ura aren poztasuna,
eguzkiari erakutsiaz
barrengo ezkotasuna!
Jaunak zerutik bedeinkatu zun
aren berezkotasuna.

Eta apaltasuna da Manuelen kontakizun eta bertsoetan ageri dena nonahi eta beti. Mari-aren kantika («Magnificat») —«Bere mirabe ezerez honengan jarri ditu begiak»— dakarki-gute gogora haren bertso askok. Astoriako omenaldian: «ainbeste jende nola bildu dan/ ni ezerez bat izanik». Leitzan: «nik onenbeste merezi nunik/ nago siñistu eziñez». Aian: «zer-gatik maite nazu ainbeste/ ni ezerez bat izan-da?» Orion: «Ezagaturik nere/ ezereztasuna». Nori eskaini, izan ere, omenaldi egokiagorik barrua oso-osorik husten duenari baino?

Honelaxe dio beste bertso batean: «apaltasu-na bear/ baitu nor denak». Arrazoi sakonago-rik! Aholku horixe eman zion bertsolari gaz-teari ere: «umiltasunak aundi/ egingo zaitu». Mariaren kantika-oihartzuna berriz ere.

Eta Manuelen erraztasuna. «Dezun erreztasu-na/ bai ederra dala» kantatu zion Basarrik. Berezko erraztasuna, erraztasun zail hori, idazle eta poeta gutxik lortzen dutena, edo dutena, izan ere ez da lortzekoa izango, ziur asko. Manuelen kontakizunak eta bertsoak entzute edo irakurtzerakoan, berarekin bate-ra zoaz ibaian behera inongo oztoporik gabe: eraman egiten zaitu eta konturatu gabe bere itsaso zabalean murgiltzen zara.

Egunsenti, argi berri,
zera gure alaigarri,
gauari agur egin diogu
ta zuri ongi etorri.
Bertsolari, abeslari,



denok gera ameslari,
txori gaixoak ere pozikan
asi zaizkizu kantari.

Manuelen dohainak aipatzerakoan, ezin atzendu bere umorea. Osasun faltak eta eritasunek markatutako aurpegiaren atzean irribarrea ageri da. Umore fina du, inola ere ez zakarra; ironia, alegia, ez sarkasmoa. Adibideak ugari dira bere bertsoetan. Bat ekarriko dugu hona erakusgarri. «Galtzak askatzean ipurdia ikusi dizunari» jarri zioten gaia eta hona hemen erantzuna:

Nere galtzak askatzen
jeiki ta naiz asi,
beste bat or zelatan
argi eta bizi;
erregalo ederra
ez dezu ikusi,
baño ni're bizi naiz
ipurdi ta guzi.



Eta ezin atzendu, jakina, azkena eta aurrena (alfa eta omega): Jainkoa. Lasartek bertsoen hasieran, tartean edo bukaeran sarri-sarri dakar Jainkoa (Zeruko Aita, Jauna, Jesus, Jesukristo, Zerua...). Haren babesean, zeruan, jarri nahi ditu ama eta aita, senideak, lagunak, aitona-amonak, gazteak, haurrak, animaliak, naturaleza... Hona hemen, adibidez, Manuelen bertso bat, poeta mistikoen sailean ere argi egingo lukeena, 1965ean «kale ertzian deadarka zauden itxua zaitugu» gaia jarrita kantatu zuena:

Zeruko Aita, al baldin badet,
zurekin nai nuke lagun,
amets bizitan nere burua
ibiltzen da gau ta egun.
Lau eguneko lurralde ontan
bistaz egon arren illun,
beste mundura bildutakuan
ia alkar ikusten degun!


Manuel kontalaria eta idazlea

K

ontu-kontari gozoa aurrez aurre, eta etxean poliki-poliki idazten; iturriari ura bezalaxe dario Manueli hitza. Badi-rudi txorrota ireki besterik ez duela, bai bertotarako bai kontatzeko.

Adi dago beti hizkuntzari, Koldo Mitxelena bezalaxe. Biok ditugu bidegile eredugarri, eta osagarri: ni nago biok ditugula maisu paregabe, baina ez, kopiatzeko, nori bere bidea aurkitzen laguntzeko baizik, nork beretik eman dezan.

Ugaria da Manuelen ekarpena, eta hori laurdenik ere ez dagoela bildurik kontuan hartuta. Hona hemen *Auspoako* liburu zerrenda:



Bertso-mordoxka, 1970

Gordean neuzkanak, 1975

Beranduko lanak, 1992

Lazkao-Txiki gogoan, 1994

Enbor zarraren ezpalak, 1995

Kantuaren ordaiñez, 1997

Uztapide gogoan, 1999

Plaza-gizonak, 2005

Hiru disko-zinta ere baditu, IZ etxeak argitaratuak, eta beste zinta bat, aparte. Xoxoa etxeak bi zinta argitaratu zizkion. Disko eta zinta horiez gainera, hainbat eta hainbat saio eta elkarrizketa telebista-irratietan, eta film labur bat ere bai, berari eskainiak.



Manueli dagokio, nori bestela, liburuxka hau burutzea, hastea bezalaxe, eta zer egokiago bere besoetan hazi zuen amaren malkoari behiala eskaini zion bertso samur hau baino:

Ama gaixo batek ni
aziya ninduan,
zenbat neke egiña
ote zan munduan!
Amaika negar malko
ixuri zenduan,
orain goxo egongo
al zera zeruan!



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Manuel Lasarteri
- Iñaki Hernandezi
- Julian Belokiri
- Antonio Zavalari
- Nikolas Aldairi
- Enrike Forondari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko ekaina

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2571-9 (Lan osoarena)
978-84-457-2573-3

L.G.:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística